

BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA, MUSIKAGELA (MUSIKA ANPLIFIKATUA EGITEN DUTEN HIRIKO TALDEEI ZUZENDURIKO ENTSEGU-GELEN ESKAINTZA) EGIA ETA INTXAURRONGO (DONOSTIA) KULTUR ETXETAN KUDEATZEKO ETA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

1. XEDEA

Lizitazio honen xedea da enpresa bat aukeratzea, "Musikagela Zerbitzua" (musika anplifikatua egiten duten hiriko taldeei zuzenduriko entsegu-aretoen eskaintza) Egia eta Intxaurrondo Kultur Etxetan kudea eta dinamiza dezan Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoarentzat (aurrerantzean, DONOSTIA KULTURA), orri honetan eta Ekonomia eta Administrazio Klausulen Orrian xedatukoarekin bat.

Horretarako, DONOSTIA KULTURAK "Musikagela Zerbitzua" k dituen instalazioak (Donostiako Egia eta Intxaurrondo Kultur Etxetan daudenak) enpresa esleipendunaren esku utziko ditu, kontratu honen prestazioak gauza ditzan.

Esleipendunak hurrengo 2. Klausulak dioenari jarraiki kudeatu beharko duen "Musikagela Zerbitzua" honako honetan datza, funtsean:

A) Entsegu-aretoak denbora batez erabiltzeko lagatzeko zerbitzua:

Egia Kultur Etxeko 7 aretotan eta Intxaurrondo Kultur Etxeko 5 aretotan emango da zerbitzua.

B) Biltegia:

DONOSTIA KULTURAK toki bat egokituko du zerbitzuaren erabiltzaileek bertan musika-tresnak gordailuan uzteko.

c) Grabaziorako eta zuzenean jotzeko ekipo eramangarriak lagatzeko zerbitzua (Egia Kultur Etxean soilik)

Lizitatuzaileek hiru atal horiek barne hartuko dituzten eskaintzak aurkeztu beharko dituzte.

Era berean, esleipendunak "Musikagela Zerbitzua" dinamizatzeko jarduerak garatuko ditu, Orri honen 2.3.B) Klausulan xedaturiko baldintzak betez.

2. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZAK

2.1 FUNTZIONAMENDUA.

Kontratua gauzatzeko, esleipendunak "Musikagela Zerbitzua"ren funtzionamendu arauak aintzat hartu beharko ditu. Ondokoak dira aipatu arauak:

A) Entsegu-aretoak denbora batez erabiltzeko lagapen-zerbitzua:

"Musikagela Zerbitzua" Egia Kultur Etxeko 7 aretotan eta Intxaurrondo Kultur Etxeko 5 aretotan emango da.

Areto hauetara sarbidea izango dute aldez aurretik erreserba burutu eta, DONOSTIA KULTURAK ezarritako prezioen arabera, kostuaren ordainketa erakundearen jabetzako kontu korronteren batean (esleipendunaren ardura da taldeek aipatu prezio ordaindu dutela egiaztatzea) egin duten musika anplifikatua egiten duten taldeek. Halaber, bi Kultur etxetan 3 areto gordeko dira egun egoitza-erregimenean dauden taldeentzat eta orain arte errotazioan dabiltzan taldeekin ere konpromisoak mantenduko dira, beraiek ere hala nahiko balute eta betiere DONOSTIA KULTURAKo webgunean argitaratua dagoen barne-araudia errespetatzeko baldintzapean. Eranskinak gaur egun entseguan diharduten taldeen zerrenda jasotzen du.

Egoitza epea gehienez urtebetekoa izango da zerbitzua abiatzen den unetik hasita eta, sei hileror, egoitza-erregimenean dauden taldeen berrikuspena egingo du esleipendunak, zerbitzuari atera dioten ustiapena ebaluatzeko. Horretarako, DONOSTIA KULTURAK aldez aurretik gutxieneko ustiapen-maila finkatuko du eta esleipendunak irizpide objektibo horri jarraituko dio.

B) Biltegia:

DONOSTIA KULTURAK toki bat egokituko du "Musikagela Zerbitzua"ren erabiltzaileek bertan musika-tresnak gordailuan uzteko.

Esleipendunak kudeatuko du biltegi horren erabilera, "Musikagela Zerbitzua"ren erabiltzaileen aldetik.

Biltegia erabili ahal izateko, "Musikagela Zerbitzua"ren erabiltzaileek DONOSTIA KULTURAK ezarritako prezioa ordainduko dute, aldez aurretik, erakundearen kontu korronteren batean. Esleipendunari dagokio "Musikagela Zerbitzua"ren erabiltzaileek aipatu prezioa ordaindu dutela egiaztatzea.

Erabiltzaileek posible izango dute biltegiaren zonalde batera sartzea (sarrera gunetik) astelehenetik igandera, edozein ordutan, zamatze eta hustuketa lanak egiteko.

"Musikagela Zerbitzua"ren erabiltzaileek dokumentu bat sinatu beharko dute, eta dokumentu horren bidez, DONOSTIA KULTURA salbuetsiko dute biltegian dauden musika-tresnen gainean sor litezkeen kalte eta gainerako gorabeheretatik.

DONOSTIA KULTURAK ez ditu bere gain hartuko utzitako materialaren kalte ardurak (lapurretak, ebasketak, matxurak, etab.).

C) Grabaziorako eta zuzenean jotzeko ekipo eramangarriak lagatzeko zerbitzua (Egia Kultur Etxean soilik):

DONOSTIA KULTURAK "Musikagela Zerbitzua"ren erabiltzaileen artean eskuragarri jarriko ditu grabaziorako eta zuzenean jotzeko ekipo eramangarriak.

Ekipo horiek erabili ahal izateko, "Musikagela Zerbitzua"ren erabiltzaileek (i) aldez aurretik, DONOSTIA KULTURAK ezarritako prezioa ordainduko dute DONOSTIA KULTURAREN jabetzako kontu korronteren batean eta (ii), kontu korronte horretan

bertan, DONOSTIA KULTURAREN aldeko bermea jarri beharko dute, honek ezarritako kopuruaz, balizko kalte eta ordainak estaltzeko.

Esleipendunari dagokio "Musikagela Zerbitzua"ren erabiltzaileek aipatu prezioa ordaindu eta bermea jarri dutela egiaztatzea.

2.2 ORDUTEGIAK ETA EGUTEGIA.

A) "Musikagela Zerbitzua"ren ordutegiak:

Kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko (ondoko 2.3.A Klausulako hirugarren gidoiak zehazten dituen baldintzak betez) esleipendunak izango duen ordutegiari kalterik egin gabe, entsegu-aretoak denbora batez erabiltzeko lagapen-zerbitzuaren ordutegia ondokoa izango da:

- Asteartetik ostiralera: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 22:30etara.
- Larunbatetan: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

B) Egutegia:

"Musikagela Zerbitzua" urte osoan zehar eskainiko da, igandeak eta abuztuko astelehenak eta jaiegunak kenduta (biltegia ez da sartzen). Egun horietan zerbitzua itxita egongo da. Aurreko 2.1 Baldintzak dioen bezalaxe, erabiltzaileek posible izango dute biltegiaren zonalde batera sartzea (sarrera gunetik) astelehenetik igandera, edozein ordutan, zamatze eta hustuketa lanak egiteko.

2.3 ESLEIPENDUNAREN BETEBEHAR BEREZIAK.

A) Diru-sarrerak:

- "Musikagela Zerbitzua"ren ustiapenaren ondorioz sortzen diren diru-sarrera guztiak DONOSTIA KULTURAREN esku geratuko dira. Hau da, "Musikagela Zerbitzua"ren erabiltzaileek entsegu-aretoak denbora batez erabiltzeagatik, biltegia erabiltzeagatik, grabaziorako eta zuzenean jotzeko ekipo eramangarriak erabiltzeagatik eta esleipendunak gauzatu dituen dinamizazio-jardueretan eta ikastaroetan parte hartzeagatik ordaindu duten prezio osoa DONOSTIA KULTURARI dagokio.

DONOSTIA KULTURAK zehaztuko du "Musikagela Zerbitzua"ren erabiltzaileek zerbitzu/jarduera bakoitzeko ordainduko duten prezioa.

Esleipendunari dagokio "Musikagela Zerbitzua"ren erabiltzaileek aipatu prezioa ordaindu dutela egiaztatzea.

B) Esleipendunaren betebeharrak bereziak:

- "Musikagela Zerbitzua"ri eta DONOSTIA KULTURAK ezarritako helburuei egokitutako kudeaketa **plan bat landu eta diseinatzea**, eskuragarri dauden baliabideak aintzat hartuta. Plana DONOSTIA KULTURAK zehaztu dituen arau eta jarraibideei jarraiki osatuko da eta erakundearen oniritzia jaso beharko du.

Kontratua sinatu eta hurrengo egunetik hasita, esleipendunak hiru hileko epea izango du plana idazteko. Planak kontratuaren lehen bi urteak hartu beharko ditu. Ekonomia eta Administrazio Klausulen Orriaren 6. Klausulak dioena betez kontratua luzatuko balitz, esleipendunak plan berria egin beharko du aipatu luzapenerako. Hiru hilabete izango du horretarako, aipatu luzapena sinatu eta hurrengo egunetik.

Aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraiki esleipendunak plana garatzen ematen dituen hilabetetan zehar, zerbitzua DONOSTIA KULTURAREN jarraibideei jarraiki gauzatuko da.

- Esleipendunak gutxieneko ordu-kopurua eskainiko dio astean "Musikagela Zerbitzua"ren arretari:

Neguko ordutegia:

20 ordu astean Egia Kultur Etxean.
20 ordu astean Intxaurren Kultur Etxean.

Udako ordutegia:

22 ordu astean Egia Kultur Etxean.
22 ordu astean Intxaurren Kultur Etxean.

DONOSTIA KULTURAK zehaztuko dio esleipendunari "Musikagela Zerbitzua"ri eskaini behar dion ordutegia. Halaber, aipatu ordutegia "Musikagela Zerbitzua"ren talde erabiltzaileen beharretara egokitua egongo da.

- Hiritarren informazio eskaerak erantzutea, "Musikagela Zerbitzua"ren ezaugarri, araudi eta funtzionamenduaren inguruko azalpenak ematea eta "Musikagela Zerbitzua"ren baitan sortzen diren jarduerak komunikatu eta zabaltzea.
- "Musikagela Zerbitzua"k eta DONOSTIA KULTURAK duten irudia eta marka (logotipoa) izango da **komunikazioetan** eta, zehazki, zerbitzuaren irudi korporatiboari eta ikusizko identitateari dagokienean erabiliko den bakarra.

Horretarako, DONOSTIA KULTURAKO irudi korporatiboa erabiltzeko gidaliburuaren jarraibide eta gomendioei jarraituko zaie. "Musikagela" DONOSTIA KULTURAREN **marka erregistratua** da eta honela dago zehaztuta Industria, Energia eta Turismo Ministerioan, 2015eko abenduaren 7tik.

Esleipendunaren irudia edo marka ez da ikusgarri egongo "Musikagela Zerbitzua"ren komunikazio-espazioetan.

- **Oinarrizko mantentze-lanak** egitea (txukunketa, argiak piztu eta itzaltzea, oinarrizko laguntza ematea taldeei, etab.).
- **Aretoen erabilera-egutegiak** lantzea, jasotako eskaerak kontuan hartuta.
- DONOSTIA KULTURAREN eskaeraz, bertako musikarekin zerikusia duten ekitaldiak edo jarduerak antolatu.
- Grabaziorako eta zuzeneko ekipoak gordetzea eta lagapenak kudeatzea, Egia Kultur Etxeko zuzendaritzak emandako jarraibideen eta araudiaren arabera. Era berean, ekipo hauen inguruko aholkularitza eta prestakuntza lanak beteko ditu.

- **Aldizkako ebaluazioa egin eta estatistika sortzea**, alde zuzenetik DONOSTIA KULTURAK ezarritako parametroei jarraiki.
- "Musikagela Zerbitzua"ren **ebaluazio kuantitatiboa eta kualitatiboa** jasotzen duen txostena lantzea urte bakoitzeko uztailean.

Txostenek genero ikuspegia (gizonezko/emakumezko) barne hartuko dute eta informazioa aldagai horren arabera bereiziko da.

- **"Musikagela Zerbitzua" dinamizatzeko jarduera eta prestakuntza plan bat** eratzea, kultur etxeko zuzendaritzak emandako jarraibideen eta aurrekontuaren arabera, eta horri lotuta, "Musikagela Zerbitzua"ri lotutako jarduerak sortu eta burutzea.

- Era berean, dinamizazio plan honek "Musikagela Zerbitzua"n parte hartzen duten taldeak lehenetsiko ditu, sektorean ezagunak izan daitezzen, eta areto publiko zein tabernetan kontzertuak antolatuko ditu.

- Esleipendunak gauzatu beharko dituen gutxieneko jarduerak aurreikusten dira:

- o **MUSIKAGELA WEEKEND** delakoa urtean behin, "Musikagela Zerbitzua" eta bertako taldeak ezagutarazteko xedearekin. Asteburu osorako jarduerak antolatuko dira; beraien artean, kontzertuak eta "Musikagela Zerbitzua"ri buruzko informazio-saioak egongo dira.

- o **Ikastaroak.** "Musikagela Zerbitzua"ri eta aplikatu musikari buruzko prestakuntza ikastaro ezberdinak antolatuko dira. Alde batetik, espezializatutako prestakuntza eskainiko da (Egia Kultur Etxean); bestetik, *masterclass* ezberdinak egingo dira Intxaurren Kultur Etxean, musikaren arloan aditu diren lagunen eskutik, orokorragoa den entzulego bati zuzenduta. Urtean zehar egin beharreko gutxieneko ikastaroak, euskaraz eta gazteleraz egin beharko direnak, ondokoak dira:

Espezializatutako ikastaroei dagokienean, **lau ikastaro izango dira gutxienez**. Bestalde, **bi masterclass** edo hitzaldi antolatuko dira **gutxienez**.

Gutxieneko izen-ematea egongo da espezializatutako ikastaroetarako: 10 lagun gaztelerazko ikastaroentzat; 8 lagun euskarazkoentzat.

Gutxieneko izen-ematea bermatu ezean, ikastaroa bertan behera geldituko da.

Masterclass saioak ez dira prestakuntza ikastarotzat hartuko. Hitzaldi edo mintzaldi formatuan antolatuko dira.

- Planak, gazteei (18-25 urte) espresuki zuzendutako jarduerak barne hartuko ditu bereziki. Aipatuek edukiera teoriko-praktiko bereiztua izango dute. Era berean, dinamizazio plan honek "Musikagela Zerbitzua"n parte hartzen duten taldeak lehenetsiko ditu, sektorean ezagunak izan daitezzen, eta areto publiko zein tabernetan kontzertuak antolatuko ditu.

Esleipenduna aurreikusitako jardueren kudeaketa guztiaz arduratuko da.

- Musikaren arloko aholkularitza eskaintzea Dkluba zirkuituaren Balorazio Batzordeari. Horrek hileroko bileretara joatea eta aurretzako lanak egitea suposatuko du.
- Bertako musika taldeen datu-basea kudeatzea: osatzea, altak eta bajak ematea eta txostenak egitea, parametro sozio-demografikoen arabera. Datu basea partekatutako artxibategi batean gorde eta eguneratuko da. Artxibategira sartzeko eskumena izango dute Egia eta Intxaurrondo kultur etxeek eta Kultur Ekintza arloa. DONOSTIA KULTURA izango da datu-basearen jabea.
- Eguneroko zereginetan zein antolatutako jardueretan auzoaren beharrak eta berezitasunak aintzat hartzea, eta bertatik jasotako eskakizunei ahal den neurrian erantzutea.

C) DONOSTIA KULTURAREN konpromisoak:

Kontratuaren gauzatzerako, DONOSTIA KULTURAK ondoko osagaiak utziko ditu esleipendunaren esku:

- 7 entsegu-areto Egia Kultur Etxean eta 5 areto Intxaurrondo Kultur Etxean.
- Bulegorako eta barne-lanerako espazioa, bai Egia Kultur Etxean bai Intxaurrondo Kultur Etxean ere.
- Biltegirako espazioa, bai Egia Kultur Etxean bai Intxaurrondo Kultur Etxean ere.
- Grabaziorako eta zuzenean jotzeko ekipo eramangarriak. **Egia Kultur Etxean soilik.**

DONOSTIA KULTURAK bere gain hartuko du:

- Espazio eta aretoen mantentze-lanak (garbiketa, kontsumoak, etab.).
- Ekipoen mantentze-lanak eta konponketak.
- Egia Kultur Etxean: neguko ordutegian, "Musikagela Zerbitzua"ren oinarritzko arreta Kultur Etxeak egingo du (irekiera, giltzak ematea, kontrola, etab.), ondoko ordutegiarekin:

Asteartetik ostiralera: 16:00etatik 18:30era.

Donostia, 2016ko abuztuaren 1a.

Jaime Otamendi Muñagorri
Zuzendari Kudeatzailea

